

GUNE EGOKIA DA HAINBAT GAUZA SUSTATZEKO: balioak, gizarte trebetasunak, joko garbia, inklusioa, laguntasuna, ahalegina eta berdintasuna; aldi berean, haur bakoitzak jakinen du zer kirol egokitzen den hobekien bere gustu eta trebetasunetara

MULTIKIROLEAN

Hasteko Udal Eskola

4 eta 7 urte bitarteko haurrentzat

ZER DA MULTIKIROLA LANTZEN HASTEAK?

Kirol jarduera integratzailea da, haurren mugimendu-trebetasunak modu ludikoan eta ez lehiatuan garatzeko eta lantzeko pentsatua. Trebetasun horiek aurrerago egiten ahal den edozein kirol jardueraren oinarria dira. Halaber, oso baliagarriak dira egunero egiten ditugun jardueretarako. Adituek gomendatzen dute haurrek Multikirola

egitea, beste kirol batzuetan hasi aurretik. Halaber, oso baliagarria da pertsona bakoitzari zein kirol datorkion egokien jakiteko.

Gure helburu nagusia da balioak eta gizarte trebetasunak sustatzea, hala nola errespetua, joko garbia, inklusioa, laguntasuna, ahalegina eta berdintasuna.

ZERGATIK EGIN MULTIKIROLA?

Hainbat azterketa zientifikok hauxe jarri dute agerian:

- Kirola funtsezkoa da haurren hezkuntzan. Garapen fisikoa, kognitiboa eta soziala suspertzeaz gain, bizitzeko ohitura osasungarriak garatzen ditu.
- Kirol bat baino gehiago egiten dutenek kirola geroago uzten dute, adin goiztiarretan kirol batean espezializatzen direnek baino. Adin goiztiarretatik kirol bakarra egiten duten haurrek "erretzera" jotzen dute, bai eta motibazioa eta

interesa galtzera ere; halaber, kirolaz lehenago gozatzeari uzten diote espezializazioa geroago egiten dutenek baino.

- Kirol bat baino gehiago egiten duten haurrek garapen atletiko eta motor hobe dute, eta halaber, trebetasun handiagoa beste jarduera batzuetan eskuratutako gaitasun oso erabilgarriak transferitzeko. Sormen handiagoa dute, eta konfiantza eta motibazio maila altuagoak ere bai.

Udalaren MULTIKIROL Eskolaren PROGRAMA

4 eta 5 URTEKOAK

PSIKOMOTRIZITATEA

Psikomotrizitatea gogoaren eta gorputzaren arteko loturaz arduratzen da, eta lotura hori nola agertzen den mugimenduan eta ekintzan. Aztertzen du ezagutzaren, emozioaren eta mugimenduaren arteko elkarrekintza eta nola eragiten dioten elkarri; haurtzaroan, bereziki. Psikomotrizitatea lagungarri zaie haurrei gorputzaren kontzientzia eta kontrol handiagoa garatzeko, bai eta trebetasun motorrak, kognitiboak eta sozio-afektiboak garatzeko ere.

Haurren adinari hobekien datorkion erarik pedagogikoenean sustatuko ditugu haien ahalmen psikomotrizeak. Jolasa gure tresna nagusia izanen da.

6 eta 7 URTEKOAK

MULTIKIROLA I eta II

Udalaren Multikirol Eskolak Atarrabian guztiz errotuta dauden eta ondoren gainerako Kirol Eskoletan egiten ahal diren kirolak erakutsi nahi ditu mailaka, eta modu erraz eta atseginean, bai eta bestelako hezkuntza-edukiak ere.

Ikasleak kirol horietako bakoitzaren ezagutza oinarritzat jasoko du, bere adinera egokitutako jolasaren bidez, hala banaka nola taldeka, gorputzez eta buruz bere garapena sustatzeko. Guztira, 60 saio inguru izanen dira.

MULTIKIROLA I

Atletismoa (6 saio)
Eskubalola I (6 saio)
Kirol egokituak eta jolas alternatiboak (8 saio)
Gimnasia artistikoa (6 saio)
Yoga eta meditazioa (4 saio)
Igeriketa I (4 saio)
Lehen sorospenak (2 saio)
Futbola I (6 saio)
Txirrindularitza (6 saio)
Patlnajea I (8 saio)
Joko tradizionaltak (4 saio)

MULTIKIROLA II

Atletismoa II (6 saio)
Eskubalola II (6 saio)
Acrosport
Musikala (6 saio)
Judoa (6 saio)
Igeriketa II (4 saio)
Lehen sorospenak (2 saio)
Eskalada (6 saio)
Futbola II (6 saio)
Pilota (6 saio)
Patlnajea II (8 saio)
Joko tradizionaltak (4 saio)

Jarduera gehienak **Pedro de Atarrabia institutuko kiroldegian** egiten dira, baina beste leku batzuk ere erabiliak dira, zer-nolako jarduera egiten den (rokodromoa, igerilekua...).